FRANCE 98

Zure agindura, Blatter jauna

FIFAk harridura agertu du epaileen jokaera aldaketagatik

Doug Mills / Ap

Edward Lennie epailea Kamerungo Raymond Kalla jokalariari txartel gorria erakusten. Kallak gehiegizko zigorra jaso zuen.

Andoni Urbistondo

EPAILEEK orain arte izan ez zuten protagonismoa berreskuratu dute, txarrerako noski, osteguneko bi partiduetan egindako lan negargarriaren ondoren. FIFAko presidente Joseph Blatterrek joko gogorra zorrotzago zigortzeko eskaera egin zien publikoki asteazkenean, eta epaileek, agintariaren aginduak fin-fin betez, bost jokalari kaleratu zituzten osteguneko partiduetan. Arrunt txarra izan zen John Jairo Toro Rendon kolonbiarraren lana Danimarka-Hego Afrika partiduan, eta berak bakarrik ikusi zituen faltengatik txartel gorria erakutsi zien hiru jokalariri. Saudi Arabia-Frantzia partiduan ere Brizio Carter mexikarrak Al-Khilaui eta Zidane kaleratu zituen. Arabiarraren kanporatzea gehiegizkoa izan zen.

Mundiala hamargarren eguna betetzera doanean, bederatzi jokalari egotzi dituzte epaileek. Gehientsuenak (zazpi) txartel gorri zuzenarekin, gainera. Italiako 90eko Mundialean 16 futbolari kaleratu zituzten Mundial osoan, eta 1994an EEBBetan 15, erdiak bi txartel hori batzeagatik. Duela lau urte 0,28 kanporaketa izan ziren partidu bakoitzeko. Orain, batez bestekoa 0,40ra igo da. Kaleratze erritmoa %50 handiagoa da Frantzian partidu kopuru bera jokatu ondoren.

Aipagarria da, baita ere, 9 aurkaria jotzeagatik kaleratuen artean daudela Kluivert holandarra eta Zidane frantziarra. Beste egozpen guztiak baloia jokoan zegoen bitartean eginiko joko gogorregiarengatik gertatu dira, horietako asko gehiegizkoak.

FIFA, agindua eman eta gero kexatu

FIFA erakundea harrituta dago epaileek bat-batean erakutsi duten jokaera aldaketarengatik. Keith Cooper bozeramaileak esan zuenez, sarrera gogorrak egiten uztetik gehiegi zigortzera igaro da tarteko biderik gabe. Cooperrek orain arte jokatutako 22 partiduen balorazio ona egin zuen, oro har. «Teknikoki ona izan da. Txartel gorriak erakusteko irizpide aldaketa izan da puntu beltzena», esan zuen.

Bozeramaileak baieztatu zuen FIFAko presidente ohia (Joao Havelange) eta behin behineko idazkari orokorra (Zen-Ruffinen) epaielen egoitzan izan zirela, baina ukatu egin zuen krisi egoera konpontzeko bisita izan zela. Blatter ez zen bertan izan.

Bestalde, FIFAk zigor dosierra zabaldu dio Italia-Txile partiduko arbitroari, Bouchardeau nigeriarrari, Italiako *Tuttosport* egunkarian egindako adierazpen batzuengatik. Giroa gehiago nahasteko, hainbat teknikarik, tartean Hiddink holandarrak, kritikatu egin dute arbitroen lana. Joseph Owona Kamerungo kirol ministroa ere kexu azaldu da, Mundialean erantzukizun handiko partiduak epaitzen ari direlako futbola ezezaguna den hainbat herritako epaileak.

lehen fasea

A multzoa

	J	I	B	G	GA	GK	P
1. Brasil	2	2	0	0	5	1	6+4
2. Norvegia	2	0	2	0	3	3	2
3. Eskozia	2	0	1	1	2	3	1-1
4. Maroko	2	0	1	1	2	5	1-3

Brasil	2	Maroko	2
Eskozia	1	Norvegia	2
Eskozia	1	Brasil	3
Norvegia	1	Maroko	0
ekainak 23 Eskozia	-	ekainak 23 Brasil	-
Maroko	-	Norvegia	-

GOLEGILEAK

1 Cesar Sampaio (Brasil), Collins (p., Eskozia), Doyde (Eskozia, bere atean), Hadji (Maroko), Hadda (Maroko), Chippo (Maroko, bere atean), Eggen (Norvegia), H.Flo (Norvegia), Burley (Eskozia), Ronaldo (Brasil), Rivaldo (Brasil), Bebeto (Brasil)

B multzoa

	J	I	B	G	GA	GK	P
1. Italia	2	1	1	0	5	2	4+3
2. Txile	2	0	2	0	3	3	2
3. Austria	2	0	2	0	2	2	2
4. Kamerun	2	0	1	1	1	4	1-3

Kamerun	1	Italia	2
Austria	1	Txile	2
Txile	1	Italia	3
Austria	1	Kamerun	0
ekainak 23 Italia	-	ekainak 23 Txile	-
Austria	-	Kamerun	-

GOLEGILEAK

3 Salas (Txile), Vieri (Italia)

1 R.Baggio (p., Italia), Njanka (Kamerun), Polster (Austria), Vastic (Austria), Di Biaggio (Italia)

C multzoa

	J	I	B	G	GA	GK	P
1. Frantzia	2	2	0	0	4	0	6+4
2. Danimarka	2	1	1	0	2	1	4+1
3. Hego Afrika	2	0	1	1	1	4	1-4
4. Saudi Arabia	2	0	0	2	0	2	0-2

Saudi Arabia	0	Frantzia	3
Danimarka	1	Hego Afrika	0
Frantzia	1	Hego Afrika	1
Saudi Arabia	0	Danimarka	1
ekainak 24 Frantzia	-	ekainak 24 Hego Afrika	-
Danimarka	-	Saudi Arabia	-

GOLEGILEAK

2 Henry (Frantzia)

1 Rieper (Danimarka), Dugarry (Frantzia), Issa (Hego Afrika, bere atean), Nielsen (Danimarka), McCarthy (Hego Afrika)

D multzoa

	J	I	B	G	GA	GK	P
1. Nigeria	2	2	0	0	4	2	6+2
2. Paraguai	2	0	2	0	0	0	2
3. Espainia	2	0	1	1	2	3	1-1
4. Bulgaria	2	0	1	1	0	1	1-1

Paraguai	0	Espainia	2
Bulgaria	0	Nigeria	3
Nigeria	1	Espainia	0
Bulgaria	0	Paraguai	0
ekainak 24 Espainia	-	ekainak 24 Nigeria	-
Bulgaria	-	Paraguai	-

GOLEGILEAK

1 Oliseh (Nigeria), Mutiu (Nigeria), Lawal (Nigeria), Hierro (Espainia), Raul (Espainia), Ikpeba (Nigeria)

E multzoa

	J	I	B	G	GA	GK	P
1. Mexiko	1	1	0	0	3	1	3+2
2. Holanda	1	0	1	0	0	0	1
2. Belgika	1	0	1	0	0	0	1
4. Hego Korea	1	0	0	1	1	3	0-2

Holanda	0	Hego Korea	1
Belgika	0	Mexiko	3
ekainak 20 Holanda	-	ekainak 20 Belgika	-
Hego Korea	-	Mexiko	-
ekainak 25 Belgika	-	ekainak 25 Holanda	-
Hego Korea	-	Mexiko	-

GOLEGILEAK

2 Luis Hernandez (Mexiko)

1 Pelaez (Mexiko), Ha (Hego Korea)

F multzoa

	J	I	B	G	GA	GK	P
1. Alemania	1	1	0	0	2	0	3+2
2. Jugoslavia	1	1	0	0	1	0	3+1
3. Iran	1	0	0	1	0	1	0-1
4. Estatu Batuak	1	0	0	1	0	2	0-2

Jugoslavia	1	Alemania	2
Iran	0	Estatu Batuak	0
ekainak 21 Alemania	-	ekainak 21 Estatu Batuak	-
Jugoslavia	-	Iran	-
ekainak 25 Alemania	-	ekainak 25 Jugoslavia	-
Iran	-	Estatu Batuak	-

GOLEGILEAK

1 Mihajlovic (Jugoslavia), Moller (Alemania), Klinsmann (Alemania)

G multzoa

	J	I	B	G	GA	GK	P
1. Ingalaterra	1	1	0	0	2	0	3+2
2. Errumania	1	1	0	0	1	0	3+1
3. Kolonbia	1	0	0	1	0	1	0-1
4. Tunisia	1	0	0	1	0	2	0-2

Errumania	1	Ingalaterra	2
Kolonbia	0	Tunisia	0
ekainak 22 Kolonbia	-	ekainak 22 Errumania	-
Tunisia	-	Ingalaterra	-
ekainak 26 Errumania	-	ekainak 26 Kolonbia	-
Tunisia	-	Ingalaterra	-

GOLEGILEAK

1 Shearer (Ingalaterra), Scholes (Ingalaterra), Ilie (Errumania)

H multzoa

	J	I	B	G	GA	GK	P
1. Kroazia	1	1	0	0	3	1	3+2
2. Argentina	1	1	0	0	1	0	3+1
3. Japonia	1	0	0	1	0	1	0-1
4. Jamaika	1	0	0	1	1	3	0-2

Jamaika	1	Argentina	1
Kroazia	3	Japonia	0
ekainak 20 Japonia	-	ekainak 21 Argentina	-
Kroazia	-	Jamaika	-
ekainak 26 Japonia	-	ekainak 26 Argentina	-
Jamaika	-	Kroazia	-

GOLEGILEAK

1 Batistuta (Argentina), Stanic (Kroazia), Earle (Jamaika), Prosinecki (Kroazia), Suker (Kroazia)